

TXOS



2008

NA

TE




TXOS



2008

TEMA
NIA



EDITATZAILEA

- Eusko Jaurlaritza
- Justizia eta Herri Administrazio Saila
- Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza
- EJE Informatika Elkarte

HELBIDEA

KZgunea Programaren Komunikazio Arloa

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

Spiral Comunicación

INPRIMATZEA

Sacal

ALE-KOPURUA

200 ale



2.0
euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA



00	SARRERA	1-2
01	HELBURUAK 2008	3-4
02	OKUPAZIOA	5-6
03	PRESTAKUNTZA	7-8
04	INFORMATIKAKO ETA INTERNETEKO ZIURTAGIRIAK	10
05	MIKROENPRESA DIGITALA	11
06	LANKIDETZAK	12-13
07	SINADURA ELEKTRONIKOA DUTEN TXARTELAK	14
08	KOMUNITATE BIRTUALAK ETA FOROAK	15
09	KONTUAK ETA EKIPAMENDUA	16
10	KALITATEKO ZERBITZUA	17
11	BESTE JARDUERA BATZUK	18-19
12	KOMUNIKAZIOA ETA MARKETINGA	20-21
13	2009KO HELBURUAK	22
14	AURREKONTUAREN LABURPENA	23



SARRERA

SA



KZgunea zentroyen euskal sare publikoa 2001ean sortu zen Euskadi Informazioaren Gizartean 2002-2005 Planaren harira; Informazioaren Gizartean euskal herritarren integrazioarako zuzendutako ekimen ugarietako bat izan zen. Gaur, Euskadi Informazioaren Gizartean 2010 Plana: "Euskadiko Agenda Digitala" proiektuaren funtsezko zatia da.



Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Administrazio Publikoko Sailaren Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritzari lotuta, zentroyen sareak oraindik ere bihelburu ditu:



RRE

Batetik, zatiketa sozialaren iturri gisa arraila digitala desagerrarazten saiatzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) herritarrak txertatzeko baliabideak ahalbidetuz.

Bestalde, sarea Administrazio elektronikoa garatzeko eragile bideratzaile bihurtzea prestakuntza-ikastaroekin, herritarrak e-Administrazioa bideratuz.

2008an KZgunea sareak erabiltzaile gisa erregistratutako ia 300.000 lagunengana muga lortu du, eta horietatik, 115.000 Interneteko oinarritzko prestakuntza jasotzeko erregistratu dira. Horrek eragin du 15 urte edo gehiagoko Euskadiko herritarren %50,5 Interneteko erabiltzaile gisa aitortzea (Eustatek 2008rako egindako inkesta).



BA




Interneteko eta haren tresnen prestakuntza-jarduerak hartzen dute 275 KZgunea zentroetako denbora gehiena, eta aurten %50 ikastaro gehiago eman dira. Baina beste zerbitzu batzuetarako eskaera asko igotzeak eraginda, KZgunea bertako prestakuntza pixka bat murriztu da; izan ere, 2008an ordenagailuen erabileraren denbora errealaren %46,77ra jaitsi da (nabigazio-eremuko jarduera kontuan hartu gabe).

Ezagutza informatikoen ziurtagiriak lortzeko azterketak, IT Txartela programakoak, sarearen eguneroko erabilera errealaren beste %37,69 izan ziren. Gainerako orduak udalerriek egindako erabilera-eskaerentarako geratu ziren herritarrekin osasun-txartelak (ONA) izapidetzeko eta enpresa txikietako profesionalei eskolak emateko (Mikroenpresa Digitala programa).

KZgunea sarearen jardueraren dibertsifikazioa tutoreen prestakuntzarekin osatu da, IKTen dinamizatzaileen profilerak egokitu daitezela.

2008ko jardueren urteko memoria honek programak zerbitzu berri horietarantz hartutako bidea jasotzen du, PESI 2010 (Euskadiko Agenda Digitala) planak nabarmentzen duenez, KZgunea zentroen sarea azpiegitura garrantzitsua da; "izan ere, hasiera batean barneratze digitalaren alorrean txertatzea baldin bazuen helburu, egun, hedapena eta kapilaritatea direla eta, herritarrei eta enpresei zuzendutako (batez ere txikiei) irismen zabaleko jarduerak gauzatzeko plataforma bikaina osatzen du".

Edonola ere, PESI 2010ek arraila digitalaren kontrako tresna gisa finkatzen du KZgunea sarea; izan ere, bertan adierazten denez, "Informazioaren Gizartearen oinarrizko zerbitzuetan kolektibo espezifikoak (55 urte baino gehiagokoak, emakumezkoak eta langabetuak, esaterako) trebatzea ahalbidetu du".



HELBURUAK 2008

KZgunea zentroyen sareak 2008an Internetera sartzeko eta Interneten prestakuntzako zentroyen sare kapilar gisa finkatzea lortu du, modu oinarritzkoan Internet ezagutzeko eta Sareko tresnetan sakontzeko gai diren milaka erabiltzaile berrirekin.

KZgunea sarea 2008

	2007	2008	Urteko gehikuntza
KZgunea duten udalerriak	250	250	0
Zentro kopurua	275	275	0
Oinarritzko interneten trebatutako erabiltzaileak	96.357	110.563	4.206
Erregistratutako erabiltzaileak	256.882	288.389	31.507

Euskal Autonomia Erkidegoko ia udalerrri guztietan banatutako 275 zentroek erregistratutako 288.389 erabiltzaile lortu dituzte guztira (2007an baino 31.507 gehiago); horietatik %38,34 (110.563) oinarritzko Interneten trebatuta daude, aurreko urtean baino 4.206 gehiago.

Hala ere, Interneten eta teknologia berrietan herritarrek trebatzeaz eta nabigazioarako zentroyek duten erabilgarritasunaz gain, 2008an hauek ere izan dira KZgunearen helburu estrategikoak:

- Administrazio elektronikoaren tresnak eta baliabideak sustatzea.
- Zentroak e-Administrazioaren zerbitzuetarako azpiegitura egokiaz hornitzea.
- Erabiltzaileen asebetetze-indize altua mantentzea.
- Zentroak euskal administrazio publikoek erabil ditzaten sustatzea.



KZguneako erabiltzaileen asebetetze maila oraindik ere oso altua da.

2008rako KZgunea helburuak

	Balioa	Eraitza	Lortutako %
Asebetetako erabiltzaileen indizea	>= 80	96,42	120,52
Ekipoak berritzea (PCak)	900	938	104,22
A eta B zentroak erabiltzea (nabigaziokoak ez diren orduak)*	58.000	65.984	113,77
e-Administrazioko prestakuntza (orduak)	3.000	2.139	71,3
C motako zentroetako prestakuntza (orduak)*	5.000	5.687	113,74
Kexen eta iradokizunen ratioa	0,5	0,01	

* **A eta B zentroak:** 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan.

* **C zentroak:** 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan.

Helburuak hainbat baliotan azaldu dira eta behar bezala bete dira, A eta B motako zentroetan egindako prestakuntza-orduen kopurua izan ezik, e-Administrazioari eskainita (3.000). Administrazio elektronikoa hasteko oinarritzko ikastaroa (urte amaieran ikastaro pilotuak hasi ziren) sortzean izandako atzerapenak eraginda, aurrez ikusitako helburuaren %71,3 bakarrik lortu zen.

Erakunde mailako bilerak

Eusko Jauriaritzak 2007an Gipuzkoako eta Bizkaiko udalerrri txikiekin e-Administrazioaren aukera berriak ezagutarazteko hasi zituen bilerei amaiera eman die.

Arabako 5.000 biztanle baino gutxiagoko 28 udalerrirekin izandako azken hitzorduan azaldu zenez, KZgunea zerbitzu berriak hauek izango dira: udalerriek Interneten duten presentzia garatzera eta herritarrekin edo haiek edozein Administrazioarekin duten on-lineko harremana handiagotzera bideratutako ikastaroak (webgunea, izapidetze telematikoak, posta elektronikoa, partaidetza-foroak eta abar).


Euskal udalekin izandako lankidetzaren osagarri gisa, eta Euskadiko Udalen Elkartearen (Eudel), Gipuzkoako Foru Aldundiaren Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen (Izfe) eta Itxasmendikoi sozietate publikoaren bidez, Gipuzkoako bost udalerriri (Aduna, Larrault, Irura, Anoeta eta Alegi) euskarri teknikoaren emateko proiektu pilotua hasi zuten.

Proiektuaren oinarria, funtsean, honelako jarduerak dinamizatzeko profesionala eskaintzea zen: udaleko webguneak egitea, Administrazio elektronikoa lotutako zerbitzuak eskaintzea eta KZgunea zentroaren beraren dinamika eramatea.

Ekimen horren emaitza positiboa izan zen udalerrri bakoitzeko beharrak eta jardunbideak detektatzeko, eta Eudelek eta Izfe-k aztertuko dituzte udaletan detektatutako baliabide-gabezia batzuk konpontzeko moduak.



Bilera Arabako udalekin Administrazio elektronikoa bultzatzeko.




OKUPAZIOA

KZgunea zentron sarean egindako jarduerak, nabigazioaz gain, oraindik ere Interneteko eta teknologia berrietako prestakuntza dira funtsean.

2008an, prestakuntzarako erabilera okupazioaren guztikoaren %58,60 izan da (erabilera-denbora erreala). Ehuneko hori honako hauen batura da: Internetekin lotutako ikastaro eta mintegiak herritarrei (%46,77) eta mikroenpresei (%2,60) emateko klase presentzialak, udalek eskatutako eta emandako prestakuntzak (%4,05) eta gainerakoa kanpoko eskaera bidez egindako prestakuntza-eskaerak, esate baterako, Gureak taldearen tailer babestuak, Itsas-mendikoi sozietate publikoa, eta elkargo profesional eta federazioak, besteak beste (%5,18).

Edonola ere, aurreko urtearekiko, nahiz eta KZguneako ikastaroetarako prestakuntza-eremuaren erabilera erreala ia 10 puntu murriztu, 2007 urtearekiko handiago egin da (ia %50).


Prestakuntza-eremu horren benetako okupazio-denbora 2008an igotzeagatik gertatu da hori, batez ere IT Txartelaren azterketak egiteko edo IKTen ezagutzak ziurtatzeko (2008an, erabileraren %37,69); aldiz, txartel elektronikoen izapidetzeak (ONA eta Herritar txartelak) gehikuntza motelagoa izan du.



Erabiltzaileak




KZgunea sareko zentro bateko erabiltzaileak.




KZgunea sarean okupazio-jardueren ondorioz, 2008an erregistratutako erabiltzaile berrien kopurua (31.496) handiagotu egin da aurreko urtearekiko (26.269); batez bestekoa hilean 2.863 altakoa da (abuztua kontatu gabe, oporraldiagatik itxita egoten baita), sarean izena emandako 288.389 herritarrentzat (zentroa erabiltzen dutenak, prestakuntza nahi duten ala ez kontuan hartu gabe).

Gorakada horren giltzarrietako bat izan da teknologia berrietan gaitasuna ziurtatzeko moduluak (IT Txartela) eskuratzeko azterketa KZgunea sarean egitea. KZgunean erabiltzaile gisa izena ematea derrigorrezkoa da probak egin ahal izateko. Nabarmendu beharrekoa da urtean izena emandakoen herena azken hiruhilekoan erregistratu zela, zalantzarik gabe, erakunde publikoetan sartzeko probek eraginda.

Erabiltzaileen profila oraindik ere konstantea da KZgunea programaren bizitzan, gehiengoa emakumezkoak dira (%57,91). Gainera, sarea erabiltzen dutenen %20,71k langabetua dela aitortu du; %14,5ek, ikaslea dela, eta %8,99k, etxeandrea dela.




Nabigazioa



Donostiako (Gipuzkoa) Alderdi Ederreko KZguneko erabiltzaileak.


Interneten nabigatzeko KZguneen erabilerrari dagokionez, batez beste 3.359 erabiltzaileko batez bestekoa izan zen, gehiengoa abenduan izanik (3.853). Nabigatzaileen %77k zerbitzu horretan izan zuen erabilera-denbora ordubete baino gutxiagokoa izan zen eta horrek ahalbidetzen du ekipoen okupazioan errotazio asko izatea.



PRESTAKUNTZA

KZgunea zentzoren sarea-
ren prestakuntza-ibilbidean
alfabetizazio digitaleko (oi-
narrizko Internet) eskolak
eta Sareko tresna eta zer-
bitzuen irakaskuntzarako
mintegiak dira nagusi, bai-
na herritarrak administra-
zioarekin telematika bidez
harremanetan jar daitezzen
lehen pausoak emanez (e-
Administrazioan hasteko
ikastaro pilotuak).

Ikastaro presentzial guz-
tiak kontuan hartuta (oina-
rrikoak, aurreratua eta
sektorialak), 2008an 4.785
eskola eman zituzten, hau
da, aurreko ekitaldian bai-
no 1.573 gehiago
(%9,91ko igoera).



Oinarrizko prestakuntza

2008. urtean, Interneteko oinarrizko prestakuntza (1.650 ikastaro eman dira) hiru ikaskuntza-ikastarok osatu dute: 20 orduko iraupena zuen orokorra, 55 urte baino gehiagokoena (Nagusiweb) eta emakumeei zuzendutakoa (Emaweb)

Oinarrizko prestakuntza urte amaieran emandako Administrazio elektronikokoan hasteko 46 ikastaro pilotuak osatu dute. "Administrazio elektronikokoan hasteko" ikastaro hori 16 orduko ikastaroa da, eta 2009an pixkanaka ezarriko da.

Oinarrizko prestakuntzako ikastaroak

KZgunea Interneten hastea	1.609
Helduak Interneten hastea (Nagusiweb)	47
e-Administrazioan hasteko pilotua	46
Emakumeentzako Interneten hastea (Emaweb)	4
Batura	1.706

Prestakuntza aurreratua

Bestalde, Interneten prestakuntza aurreratua eskaintzeko 48 mintegiak (1 eta 4 ordu arteko eskolak) 2.654 eskolaren bidez eman dira, aurreko urtearekiko 1.091ko gehiago. Interneteko zerbitzuak eta tresnak irakasten dituzten ikastaroak nagusitu dira, esaterako, sinadura elektronikoa, banka elektronikoa, argazkigintza digitala, posta elektronikoa eta berehalako mezularitza.

Prestakuntza aurreratuko ikastaroak*

Sinadura elektronikoa	433
Egin lan zure finantza-erakundearekin HI	274
Irudi digitalen tratamendua HI	274
Posta elektronikoa	237
Berehalako mezularitza	230
Ezagutu Osasun Txartel Elektronikoa (OTE)	136
Irudi digitalen tratamendua II	89
Foroak eta ohiko galderak	85
Dokumentuen irakurgailua (Acrobat Reader)	71
Kontsumitzailea Sarean	61
Gainerakoak (38 mintegi)	764
Batura	2.654

*Kopuruaren arabera, egindako lehen 10 ikastaroen rankinga.

Prestakuntza sektoriala

Prestakuntza sektoriala 425 eskolak osatu dute, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuren (SPRI) Mikroenpresa Digitala programaren baruan, autonomo, mikroenpresa eta merkatarietara zuzenduta.

Memoria honek bereziki eskaintako kapituluak landuta dago prestakuntzako lankidetzak hori.



Eskola bat Durangoko (Bizkaia) KZgunean.


Oinarrizko Interneten prestatutako erabiltzaileak

Oinarrizko Interneten ikaskuntzako hiru ikastaroak 7.912 lagunek erabili dituzte 2008an, horrek aurreko urtean alfabetizazio digitalean izandako jaitsiera-dinamika hautsi du (816 lagun gehiago), nahiz eta 2003ko erregistrotik urrun egon (31.983).


Nabarmendu beharrekoa da 2005etik Interneteko prestakuntza jaitsiz joan dela, lehen urteetako alfabetizazio digitalaren eskaera handia jaitsita, eta 2008an berriz ere gorako joera hartu du. KZgunea ikastaroetako prestakuntzako erabiltzaileentzat ordenagailuak libratze hori beste zerbitzu batzuekin bete da, esate baterako, IKTen ezagutzako azterketak (IT Txartela), mikroenpresetako langileen prestakuntza edo sinadura digitala duten txartel elektronikoen izapidetzea.

Oinarrizko Interneten prestatutako profilari dagokionez, berriz, gehiengoa emakumezkoa da (%62,71), baita pertsona aktiboak ere (%43,15); bestalde, nabarmendu beharrekoak dira beste kolektibo batzuetako prestakuntza ere, esate baterako: etxeko andreena (%17,37), erretiratuena (%14,11) eta langabetuena (%20,97).


Oinarrizko Interneten prestatutako berriak (urteka)



Prestakuntza jaso duten erabiltzaileak sexuen arabera sailkatuta (%)



Prestakuntza jaso duten erabiltzaileak jardueraren arabera (%)




On lineko prestakuntza

Bestalde, KZgunearen ikastaro interaktiboetarako sarbideak gehiago historikoetara iritsi dira 2008an. Internet zer den jakitea, ziurtagiri digitala duten txartelek nola funtzionatzen duten jakitea, posta elektronikoa zer den jakitea edo segurtasunez nola nabigatu jakitea dira lehentasunak Webgunean eskaintzen diren on lineko 29 ikastaroen artean.

Ikastaro horiek 2008an 26.010 sarbide izan zituzten guztira, hilean batez beste 2.168 sarreraekin.

Hauak izan dira, ordena honetan, bisitariak gehien eskatutako ikastaro interaktiboak:

- KZgunea oinarritzko Internet
- Sinadura elektronikoa
- Osasun Txartel Elektronikoa
- Posta elektronikoa
- Segurtasuna Interneten (Panda)
- Fitxategien konprimagailua (WinZip)
- Postal elektronikoak bidaltzea
- Hizkuntza-itzultzailea
- Dokumentuen irakurgailua (Acrobat Reader)
- Egunkariak irakurtzea
- ViaMichelin bidaien zerbitzua



Oinarritzko Internet ikasteko KZguneako onlineko ikastaroaren mapa.



INFORMATIKAKO ETA INTERNETEKO ZIURTAGIRIAK

KZgunea zentrozen sarea IT Txartela lortzeko leku nagusi bihurtu da. IT txartela informatika eta Interneten ezagutzaren ziurtagiria da, eta dagokion azterketaren bidez eskura daiteke; 2002an jarri zuen martxan SPRI sozietateak Softwarearen Europako Institutuaren (ESI) laguntzarekin, ziurtagiriak ematen dituen erakunde gisa.

Azterketek 54 modulu hartzen dituzte guztira, sistema eragileekin, ofimatikako programekin, diseinu grafikoarekin eta software libreakin lotutako gaiekin.

2008an horretarako gaitutako ia 100 KZgunea zentrotan guztira 55.880 azterketa egin dituzte, eta %40 inguruk gainditu dituzte.


Azterketa horiek doakoak dira, Euskadin erroldatuta dauden 14 urte baino gehiagokoentzat zabalik daudenak, eta telezentroetan ez ezik, akademia homologatuetan eta lanbide heziketako zentrotan ere egin daitezke.


2008ko azken hiru hilabete gehien eskatutako eta gainditutako ziurtagiriak hauek izan dira, ordena honetan: Word aurreratua eta oinarrikoa, Outlook XP eta Excel oinarrikoa.



IT Txartelarekin lotutako orrialdea KZgunearen atarian.

IT Txartelaren ziurtagiriak KZgunean (urteen arabera)





MIKROENPRESA DIGITALA



2008an, guztira KZgunea sareko 44 zentro aritu dira lanean Mikroenpresa Digitala programako ikastaroen eskararak betetzeko autonomoei, merkatariei eta mikroenpresei emandako prestakuntzaren atalean.

Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuaren (SPRI) ekimen horrek enpresa txikiei emandako dirulaguntzak eta prestakuntza bateratzen ditu. Ekimenaren helburua IKTen erabilera babestea da, konpainien eraginkortasuna handiagotzeko eta haien berrikuntza errazteko.

Mikroenpresa Digitala programa

Katalogoko ikastaroak	25
Eskainitako eskolak	367
Joan direnak	1.790
KZgunea zentroak	44

2008an aurreko urteko kopuruak gainditu dira; izan ere, informatikako ekipoetarako laguntzak jasoko dituztenei KZgunea zentroen sarean bi orduko ikastarora joateko eskatu zaie.

Emandako 367 eskoletan (2007an baino 163 gehiago) 1.790 profesional bertaratu ziren, aurreko urtean baino 820 gehiago.

Programa honetako ikastaroak mikroenpresen, autonomoen eta merkatarien gaietara egokituta daude eta Interneten gaineko oinarritzko prestakuntza, posta elektronikoa eta Sarearen erabilgarritasunak (web orriak sortzea, on lineko banka, merkataritza elektronikoa eta abar) biltzen ditu besteak beste. Horrez gain, Administrazio elektronikoaren inguruko prestakuntza ere biltzen du (sinadura elektronikoa, izapidetze telematikoa eta abar).



LANKIDETZAK

KZgunea programak 2008. urtean 22 erakundeekin, entitate profesionalekin eta kolektibo sozialekin lan egin du zentrozen sarea teknologia berriei lotura duten programa ugarientzat eskuragarri jartzeko. Lankidetzak horren ondoriozkoak izan dira erakunde hauek KZgunearen lokaletan emandako 478 ikastaroak. Ikastaro horietara 3.272 lagun joan dira.

Lankidetzak

Jatorria	Joan direnak	Ikastaroak
Udalak	1.367	171
Gureak	618	143
Justizia	190	23
Gizatiar	162	30
EPL	139	14
Gipuzkoako Merkataritza Federazioa	125	11
HHI	89	9
HABE	86	6
Lantegi Batuak	82	9
Izenpe	69	9
Kirolaren Euskal Eskola	68	5
Arabako Foru Aldundia	65	10
Itsasmendikoi	61	10
Industria-Iturginak	26	7
Farmazialarien Elkargoa	22	3
EHU	20	4
Turismoaren Ordezkaritza	20	1
Barne Saila	18	5
Uren partzuergoa	17	2
EHNE	13	4
Industria Saila	11	1
Gipuzkoako Merkataritza Ganbera	4	1
	3.272	468

Udalak

Udalak eskatu dituzte gehien KZgunearen azpiegiturak hainbat gairen inguruan prestakuntza-ikastaroak egiteko funtzionarioentzat eta auzokoentzat.

Guztira 51 udalak (2007an baino 11 gehiago) 56 zentro erabili zituzten 2008an, beren prestakuntza emateko KZguneetako ekipamendu informatikoa aprobetxatzeko asmoz. Haietan eskainitako 171 ikastaroetan 1.367 lagun izan ziren.



Munitibar - Arbatzegi Gerrikoitzko KZgunea udaletxe bizkaitar honetan dago.

Udalak garatutako prestakuntzako gaien artean, administrazio-zereginetarako programa informatikoei lotutakoak nabarmentu dira (Open Office).

Zentroak erabiltzeko eskaera gehien Bizkaitik dator (31 udalerrri), atzetik Gipuzkoa (14) eta Araba (6) izanik.

Gureak



Gureak taldeko erabiltzaileak KZgunean.

Bestalde, KZgunea sareak atek zabalik izan ditu ezintasunak dituzten pertsonak biltzen dituzten erakundeekin lankidetzan jarraitzeko. Hitzarmen garrantzitsuena, besteak beste, Gureak tailer babestuekin izan da. Adimen-urritasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkartearen, Atzegiren, ekimena da.

Guztira, Gureak taldeko 618 bazkidek Internetekin lotutako 143 ikastaro egin zituzten (nabigazioan hasia, posta elektronikoa edo sinadura elektronikoa) Gipuzkoako 10 zentrotan; bereziki aipatu behar da Lasarte-Oriako eskoletan izandako bertaratze handia.

Justizia

'JustiziaSIP' aplikazioaren erabilera gaitasunak eskuratzeko abokatuak eta prokuradoreak zuzendutako prestakuntza 190 profesionalak egin zuten KZgunea sareko Gipuzkoako zazpi zentrotan bidez emandako 23 ikastarotan.

'JustiziaSIP' espediente judizialak kudeatzeko Justizia Sailaren web bidezko informazio-zerbitzua da.

Gizatiar

Bizkaiko Erromoko Emakumeen Elkarte Soziokulturalako (Gizatiar) kideei zuzendutako IKTetan trebatzeko prestakuntza-ekintzetan 162 kidek parte hartu zuten 30 ikastaroren bidez.

Kontratazio elektronikoa

Kontratazio Publiko Elektronikoan (KPE) Eusko Jaurlaritzako kontratazio-eredu horrekin lan egiten duten kolektiboak gaitzeko eta sentsibilizatzeko emandako prestakuntzan 139 profesional izan ziren, eta 14 ikastaro jaso zituzten.

HHI

Helduen Hezkuntzako Ikastetxeek (HHI) bost KZgunea zentro erabili zituzten bederatzi ikastaro emateko, gehienak informatikaren ingurukoak, eta 89 lagun bertaratu ziren.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) sei ikastaro egin zituen Deustuko eta Leioako (Bizkaia) KZguneetan. Euskaltegi-tako 86 langile joan ziren.

Merkataritza Federazioa

Gipuzkoako Merkataritza Federazioak antolatutako ikastaro ugariaren bidez saltokiak kudeatzeko eta tresna ofimatikoen erabilera trebatzeko 125 profesional bildu ziren sei zentrotan.

Arabako Foru Aldundia

Era berean, nabarmendu beharrekoa da Arabako Foru Aldundiarekin izandako lankidetzak. Arabako zortzi KZgunea zentrotan on lineko errenta-aitorpeneko prestakuntza jaso zuten 35 herritarrek, 'RentaRed' foru-programarekin egiten ikasteko.



Internet bidez errenta-aitorpena egitearen inguruko ikastaroa Zuiako KZgunean (Mungia).

Herritar horiek leku hauetako KZguneetan egin zituzten ikastaroak: Dulantzi, Artziniega Asparrena, Bastida, Oion, Erriberagoitia, Erriberabeitia eta Zuia.


Gainera, beste 30 lagun joan ziren zentro horietara Arabako Foru Aldundiak eskainitako ofimatikako eta oinarritzko informatikako ikastaroetara.

Kirolaren Euskal Eskola

Nabarmendu beharrekoak dira, gainera, Lakuako (Gasteiz), Leioako eta Okendoko (Donostia) zentroetan Kirolaren Euskal Eskolak emandako bost ikastaroak ere. Ikastaro horietan GPS tresnen eta kirolaren arloan aplikazioak duten beste gailu tekniko batzuen erabilera landu zuten.

Besteak

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailak KZgunea sareari eskatu zion sinadura elektronikoaren erabilera funtzionarioei prestakuntza emateko. Bestalde, Bizkaiko Lantegi Batuak fundazio sozialak 82 laguni Interneten hasierako prestakuntza eman zien bost zentrotan.



SINADURA ELEKTRONIKOA DUTEN TXARTELAK

KZgunea programak Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundien ziurtagirien eta sinadura digitalen Euskadiko entitatearekin, Izenperekin, lankidetzaz bultzatzen jarraitu du izapidetze telematikoa garatzeko.

Lankidetzaz oso garrantzitsua izan da zentroak sinadura elektronikoa duten txartelak eskatzeko, izapidetzeko eta entregatzeko prestatzeari dagokionez, batez ere herritarren erabilerarako osasun txartel elektronikoen (ONA txartela) formatuan.

Guztira 12.760 euskal herritarrek eskatu zuten txartel hori KZgunea sarearen 59 zentrotan 2008an; horietatik 8.903k lortu zuten.

ONA txartelarekin lehenengo osasun-txartelarekin ziurtatutako osasun-prestazio guztiak egin daitezke, eta gainera, onartutako sinadura elektronikoa barnerratu du, itsasontzien jokoak, gertutasun-antena, barrakodea eta banda magnetikoak gain.

Horrela, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzuetarako (medikuarekin hitzordua on line adostea, mediku-aldaketa eskatzea eta abar) sarbidea eta udal bakoitzeko Internet bidezko zerbitzu jakin batzuetarako sarbidea ahalbidetzeaz gain, Foru Aldundiaren izapidetza (errenta-aitorpena)



Stand de la entidad vasca de firma electrónica Izenpe en la Feria Nagusi de Barakaldo.

egiteko eta gidabaimeneko puntuak kontsultatzeko (Administrazio zentrala) aukerak eskaintzen ditu txartelak.

Bestalde, KZgunea sarean Herritarren Txartel Elektronikoa (HTE) edo sinadura digitala duen euskal txartela ere eskatu dute. Hori ere Izenpe erakunde publikoarena da.

ONA txartelaren hedapenarekin, Hiritarren txartelaren eskaeraren bolumena nabarmen jaitsi da 2007 urtearekiko. Izan ere, urte horretan 2.542 herritarri eman zitzaizkien txartela, eta 2008an, berriz, 252ri bakarrik.

► Prestakuntza

Bi txartelen izapidetzea eta entrega horren prestakuntzarekin osatu da, eta prestakuntza hori ikastaro hauen bidez egin dute:

- Sinadura elektronikoa. Eskolak iraun bitartean sinadura elektronikoa zer den adierazi eta Izenpe erakundeak eskaintzen dituen txartelak aztertu dituzte.
- Ezagutu Osasun Txartel Elektronikoa (OTE). Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Osanet atariaren bidez banakako osasun txartel elektronikoen erabilgarritasunak zein diren ikusi dute ikasleek.

Guztira 1.989 erabiltzailek 607 eskola jaso zituzten bi ikastarotan, batez ere sinadura elektronikorenean 1.565 herritar izan ziren.



KOMUNITATE BIRTUALAK ETA FOROAK

Erabiltzaile aktiboen edo komunitate birtualen programa Euskadi Informazioaren Gizartean izeneko lehen planaren babesean sortu zen, 2002an, eta haren helburua herritarren lankidetzatza bultzatzea da, tokian tokiko izaera duten edukiak eta zerbitzuak sortzeko.

Guztira, irabazi asmorik gabeko Euskadiko sei elkartek eman zituzten ezagutzera beren lanak KZgunea atarian 2008. urtean.

KZgunea programa abian jarri zenetik, guztira, web orri horretan ostatu izango duten atariak sortzeko Euskadiko elkarteek egindako 400 eskaera baino gehiago jaso ditu eta horietatik 289 mantendu egin dituzte zentroen sareko ehun tutoreren laguntzari esker.

Hauek dira iaz atari horretan ostatu hartu zuten elkarte berriak beren jarduera nagusiaren arabera:

Kiroletakoak

- Club Taekwondo Urreta Garriko (Galdakao)
- Eskoriatzako Kirol Elkarte (Eskoriatza)

Musika, dantza eta folklorea

- Kantaka Abesbatza (Lazkao)



Lazkaoko (Gipuzkoa) Kantaka Abesbatza-ren webgunea.

Helduak

- Etxebarri Goikoa Zahar Etxea (Etxebarri).

Kultura sustatzeko jarduerak

- Elorrioko Argazki Taldea (Elorrio).

Emakumearen sustapena

- Atxondoko Lamiak (Abadiño).

Elkarteetara egindako bisitaldiak hazi egin dira urtez urte, 2008an 24.389 internautaren ekintzari dagozkion hileko 39.450 sarbide izanik. Maiatza eta ekaina izan ziren hila-bete aktiboenak, bakoitzean 63.000 sarbide baino gehiago izanik.

Foroak

Programaren web orriak foroen aukeraketa biltzen du. Foroak informatikaren sektoreko profesionalak neurtzen dituzte eta zalantzak, planteamenduak edo galdera soilak dituzten pertsona guztiei zuzenduta daude; zalantza edo galdera horiek beste erabiltzaile batzuek edo moderatzaileek erantzun ditzakete.

Hauek dira irekita dauden foroak, partaidetza-ordenaren arabera:

Teknikoak

- Softwarea
- Internet eta Informatika
- Hardwarea

Sektore mailakoak

- Gastronomia
- Ekologia
- Helduak
- Kultura
- Kirola
- Euskara
- Musika
- Emakumeak
- Gizarte-egoera ahulekoak

Foro horiek, 2008 amaieran, ia 30.000 erabiltzaile izan zituzten erregistratuta, eta horietatik 600 iritzi-gai edo eztabaida-gai zabaldu zituzten, 4.000 mezu ingururekin.

09

KONTUAK ETA EKIPAMENDUA

Kontu aktiboak

Herritarren artean posta elektronikoaren erabilera ahalbidetzeko asmoz, zentroetan izena emandako guztiek 'kzgunea.net' domeinuko doako posta-kontu bat jaso dute. 2008an hilean batez beste aktibo zeuden (erregulartasunez erabiliak) 10.439 kontu erregistratu ziren.

Kopuru hori 2002-2007 aldiarekiko mantendu egiten da (hilean 11.000 kontu egon ziren batez beste); aldi horretan, 2003ko udazkenean izan zen puntu gorena, 13.500 herritarrekin.

Ekipamendu informatikoa

KZgunea programaren beste helburuetako bat ekipamendu informatikoa berritzea izan da: sarean jarritako 2.600 ekipo guztira. Prozesu hori 2007an hasi zuten, eta 2008an 938 unitate berri ziren (programatutakoak baino 38 gehiago); aldaketa hasi zenetik guztira 1.925 unitate aldatu ziren.

Bestalde, sareko 275 zentrok 275 inprimagailuko eta 40 eskanerreko bolumena mantendu zuten.



Berritutako informatikako ekipamenduak Hondarribiko (Gipuzkoa) KZgunean.



KALITATEKO ZERBITZUA

Ziurtagiriak



Espainiako Normalizazio eta Zertifikazio Erakundeak (AENOR) KZgunea programari emandako ISO 90012000 kalitateko ziurtagiria berresten jarraitzen du. 2002. urtetik, Euskadiko KZgunea telezentroen sareak, beraz, bere prozedurek kudeaketako eta etengabeko hobekuntzako kalitateko arauak betetzen dituztela ziurtatzen du.

AENORren azken txostenak, auditoretza amaitutakoan, berresten du KZgunea programaren kudeaketa-sistemak ISO 9001-2000 kalitate-araua betetzen jarraitzen duela eta 'erakundearen kalitate-helburuak eta politika betetzeko egokia dela'.

Ziurtaginerako enpresak 2008an KZgunea programaren indargune gisa nabarmendu ditu zentroetako erabiltzaileen artean egindako gogobetetze mailaren inguruko inkestak emaitzak eta web orrian argitaratu izana kexei eta horien erreklamazioei emandako tratamendua.

ISO ziurtagiria berretsi izanak, gainera, KZgunearentzat IQ-Net Ziurtagierako Organismoen Nazioarteko Sareak emandako diploma izatea dakar berekin. Zalantzarik gabe, barneko Kalitate Plana etengabe berrikustean oinarrituta dagoen aipamen bikoitza izan da. Plan horrek programa egokia den ala ez balioztatze adierazleak eta helburuak biltzen ditu, eta eskuragarri dituen giza zein teknika alorreko baliabide guztien kudeaketa onari eskaintako aintzatespena jasotzen jarraitzen du.

Gogobetetze-inkestak

2008an KZgunea sareko erabiltzaileei egindako bi gogobetetze-inkestak emaitza ezin hobek eman dituzte: inkesta egindakoen %96,42k esan du gustura dagoela (%54,85 oso gustura eta %41,57 gustura). Emaitza horrek 3 puntutan gairiditzen du 2007ko emaitza (%93,18)

Abenduan eta ekainean egindako laginetan 500 lagun ingururi egin zaie inkesta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hamar zentrotan, eta antolaketaren, gelako baldintzen, ikastaroaren edukien, dinamizatzailearen eta prestakuntzako materialaren inguruko atalen gogobetetzea neurtu zen. Inkestek %95eko konfiantza maila izan dute, eta laginetako errorea % + - 10koa da.


Jasotako prestakuntzaren gaineko atalean, abenduan egindako azken laginean gustura zeuden erabiltzaileen tasa %98,51koa izan zen, gainera, galdetutakoen %87,18k esan zuten, zentroan ikasitakoa gerora erabili egin zuten.

Abendu horretan, KZgunea zerbitzuari buruzko hainbat arloren inguruko galdera ugari zituen aukeren lehen inkesta egin zen. Haren emaitzak ere programaren balorazio altua islatu zuen. Lagina 520 lagunekin egin zen, gogobetetze-inkestako konfiantza maila eta laginetako errore berarekin.




Erabiltzaileak prestakuntza jasotzen Irungo (Gipuzkoa) KZgunean.

Aukeren inkesta horretan, inkesta egindako gehienek (%57,63) baieztatu zuten ez zutela prestakuntza-gabeziarik nabaritu, eta gainerakoan artean, gehiengoak ofimatikako ikastaroetara sarbidea izateko aukera nabarmendu zuen (Word, Excel, Power Point eta abar). Bestalde, erabiltzaileen %63k esan zuenez, ekipo informatikoen erabilera ez dute ezertan aldatu nahi; beste batzuek esan zuten horietara hainbat gailu konektatu nahiko lituzketela (%19,28) edo denbora gehiagoz ekipamenduak erabiliko lituzketela (%12,85). valoración del programa. La muestra se realizó a 520 personas con el mismo nivel de confianza y error muestral que en las encuestas de satisfacción.



Kexak eta iradokizunak

Kexen edo iradokizunen tratamenduari dagokionez (200 inguru 2008an), programaren web orrian argitaratzeaz gain, horiei erantzun egokia eman nahi izan zaie beti; horretarako, aztertu eta ahal den neurrian, irtenbide egokia ematea, eta dagokionean, irtenbideen aukera ematea lortu da.



BESTE JARDUERA BATZUK

KZgunea programa 2008an alfabetatze digitalarekin, Internetekin eta teknologia berriekin lotutako hainbat foro sektorial eta publikotan izan da.

Jardunaldiak eta kongresuak

2008an, KZgunea zentroyen sareak hitzordu hauetan hartu du parte (hitzaldiak, antolaketa...):

- Telezentroyen eta Telezentro Sarearen VII. Kongresua (Fuerteventura – Kanariak).
- Telezentroyen Komunitatearen Topaketa (Lanzarote – Kanariak).
- Telezentroyen Komunitatearen Topaketa (Logroño – Errioxa).
- “Jarri martxan zure telezentroa” jardunaldia (Mérida – Badajoz).

Barnetegi teknologikoa

Era berean, KZguneak 2008an “Barnetegi Teknologikoaren” beste edizio bat babestu zuen, oraingoa Urretxun egin zuten (Gipuzkoa). 50 urte baino gehiago eta Euskadi osotik etorritako hamabi lagunen parte-hartzearekin, emandako gaiak, batez ere, Interneten erabilera eta web zerbitzuak izan ziren.

Second Life

KZgunea programak 2008an Second Lifen egoitza birtuala garatu zuen, uharte-formarekin, Euskal Autonomia Erkidegoaren antzeko siluetaekin, eta hiru lurralde historikoetako paisaia eta eraikin ezagunak bildu zituen, prestakuntzako hainbat gela izateaz gain.

Urtarrilean Second Lifeko KZgunea geletan prestakuntzako esperientzia pilotuak hasteko bilerak egin zituzten hainbat erakunderekin, besteak beste, hauekin: Universitat Oberta de Catalunya, Gureak euskal elkarte edo Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (Habe).

Ekimen horri dagokionez, KZgunea sareak eta Telezentroyen Komunitateak KZgunea uhartean, Internet Egunean, Telezentroyen I. Kongresu Birtuala antolatu zuten. Hamahiru komunitate autonomok parte hartu zuten, eta stand birtualak bisitatu zituzten, haietako bakoitzaren web orriak eta proiektuak ezagutzeko.

Internet Eguna

Laudion (Araba) izandako Informazioaren Gizartearen eta Telekomunikazioen Munduko Eguna dela eta (Internet Eguna: maiatzak 17), Spri sozietateak eta KZgunea sareak Euskadiko hiru hiriburuetak erdigunean “Internet pausoz pauso” liburuaren 20.000 ale banatu zituzten (Interneteko oinarritzko ikasketa-gidaliburua, euskaraz eta gaztelaniaz, KZguneak egindakoa).



Internet Egunaren aurkezpena Laudion (Araba).

Ekimen horri teknologia berriekin lotutako gozokien ideia onena saritzeko lehen lehiaketa gehitu zitzaion. Internet Goxo-Goxo izeneko lehiaketa antolatzeko, Spri erakundeak, Internet&Euskadi Elkarteak, KZguneak eta Euskadiko Pastelgile eta Gozogileen sektoreak parte hartu zuten. Azken horiek Internet bidez aurkeztu zituzten ideiak. Saria jaso zuen gozokia Laudion egindako Interneten Eguna ospatzera joan ziren guztiek dastatu zuten.



KZgunearen egoitza birtualaren aurkezpena Second Life-n.

Topaketa informatikoak

KZgunea proiektuak, gainera, Internetekin eta teknologia berriein lotutako hainbat gertakari publikotan izan zen:

- Gipuzkoa Encounter (Tolosa). Gipuzkoako Foru Aldundiak, Sprik, Kutxak eta KZguneak lagundutako topaketa. Lurraldeko jai informatiko handiena da.
- Internet Eskola (Tolosa). Tolosako Udalak, Euskaltelek, Sprik eta KZguneak antolatutako eskola. Modu ludikoan Sareak eskaintzen dituen zerbitzu erabilgarrienen funtzionamendua irakasteko gune gisa konfiguratu da.
- Euskal Encounter (Barakaldo). Euskaltel Fundazioak eta Sprik KZgunearen lankidetzarekin antolatutako topaketa. Informatikako zaletuen estatu mailako bilgune nagusia da. KZguneak, gainera, BECeko bilgunea baliatu zuen Euskaditik kanpoko beste telezentroen sare batzuetako kideei 4.096 ordenagailuetako 15 erreserbatzeko.



Barakaldon (Bizkaia) egin zuten Euskal Encounter topaketaren itxura.



KOMUNIKAZIOA ETA MARKETINGA

KZgunearen Komunikazio eta Marketing arloak 2008ko ekintzak bideratzeko garaian, irudia indartzeko jarduerak hartu ditu kontuan, komunikabideetan bere jarduerak hedatuz eta web orriko edukiak eguneratuz. Gainera, sustapeneko ekintza batzuk ere egin dituzte.

Web orria

KZgunea programako web atarian 2008an izandako bisita kopuruak gora egiten jarraitu du, hilean batez beste 68.856 bisitarekin (aurreko urtean baino ia 4.000 gehiago). Gehiago puntua berriz ere abenduan lortu zen, 81.559 sarbide izanik.

Halaber, atariak 20 berri eman ditu guztira, guztiak KZgunea programarekin lotuta, eta sarea hedatuta dagoen zentro bakoitzeko orrialdeetan zentroen eta udalerrietako argazkiak berriitu ditu, 1.000 irudi baino gehiago argitaratuz.

KZgunearen web ataria erabiltzaileen gehiengoak atsegin du (%95,38), eta horiek, gainera, abenduan sareko hamar zentrotan 520 laguni egindako aukeren inkestaren arabera, ez lukete ezer hobetuko.

Web orriaren berrikuntza bat aipatzearen, San Joseph harrobiaren (Arrasate, Gipuzkoa) etorkizunari buruzko inkesta aipa daiteke, Gipuzkoako udalerri horretako udalak sustatutakoa. 274.000 metro koadroko gainazalerako zer erabilera nahi zuten adierazi ahal izan zuten internautek.

Komunikabideak

KZgunea proiektuak beti izan du presentzia orotariko eskal prentsako komunikabide ugarrtan, bai prestakuntzako bere ikastaroen komunikazioa dela eta, bai herritarrek erabiltzeko osasun txartel berriaren (ONA) hedapenean izandako lankidetzagatik.

Era berean, KZgunea jarduerako 200 aipamen txiki baino gehiago izan dira 2008an, batez ere Gipuzkoako egunkarietako eskualdeetako edizioetan.

Programak, gainera, Interneten ere presentzia izan du neurri ertain eta handiko euskal udal ugarraren web orrietako esteka edo informazioetan, baita hainbat argitalpen birtualetan ere, hala nola Euskadi Informazioaren Gizartean 2010 Planaren on lineko buletinean (Newsletter Agenda Digital@), KZgunea zentroen euskal sareari buruzko informazio zabala jaso baitzuen lehen alean.

EIGP 2010en onlineko lehen aldizkariaren aurkibidea.

Nagusi Azoka

KZgunea Nagusi 2008 Azokan egon zen, Eusko Jaurlaritzaren standean, Izenpe eta Euskadi Informazioaren Gizartean Planarekin (Euskadiko Agenda Digitala) batera. Ekitaldia aisialdiko, osasuneko eta zerbitzu espezifikoen ingurukoa da eta Barakaldoko (Bizkaia) BECen egin zen udazkenean helduei zuzenduta.

600 heldu inguruk partaidetza aktiboa izan zuten standean, IKTen gaineko hitzaldietan (Euskadiko Agenda Digitala), on-lineko inkestetan eta mikroikastaroetan (KZgunea Gela Digitala) parte hartuz eta ONA osasun txartela eskatuz (Izenpe). Mikroikastaroak 15-20 minutuko eskolak izan ziren, KZgunea sareko bere tutorearekin eta hirugarren adinekoei zuzenduta (osasuna, bidaiak, gastronomia eta abar).

Inketa on-line bete zutenen %61ek aipatu zuten Internet erabiltzeko erraza edo oso erraza dela, eta baloraziorik onena jaso zuten atalak posta elektronikoa eta informazioaren bilaketa izan ziren.

Esparrura joan zirenek interes handia agertu zuten, gainera, KZguneak Internet ikasteko egindako eta Spri elkarteak berrargitaratutako liburuarekin. Ehunka ale banatu ziren, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.

Gabonetako sustapena

Abenduan KZgunea erabiltzaileen artean gabonetako sustapena egin zuten, Olenzero zela eta. Guztira 876 lagunek bidali zizkioten opariak eskatzeko gutunak on-line euskal pertsonaia ezagunari. Zozketa bidez, hamabi sari banatu zitzaizkien partehartzaileei.

Data horretan bertan, KZgunea programa Barakaldoko (Bizkaia) BECen egindako Gabonetako Haurren Parkean ere egon zen; estatuan egiten den gabonetako ekitaldi ludiko eta aisialdiko ekitaldi handiena da. Eusko Jaurlaritzak proposatutako ekitaldien artean, zentroen sareak antolatutako eta instalatutako ordenagailuen eremua aipatu behar da, bertaratutakoek Interneten nabigatu ahal izateko prestatutakoa.



Interneten erabilgarritasunen inguruko eskola Nagusi Azokako KZgunearen standean.



2009KO HELBURUAK

KZgunea programak 2009rako dituen helburu nagusietako bat e-Administrazioarekin lotutako baliabideak eta tresnak erabiltzeko herritarrei prestakuntza ematea da. Hori dela eta, Administrazio elektronikoan hasteko ikastaroa eta oinarrizko Interneten eta e-Administrazioaren ikastaro mistoa behin betiko abian jartzearekin batera, prestakuntza horretan aurrez ikusitako orduan ugarituko dira.

Bestalde, KZguneako erabiltzaileen gogobetetze-tasa altua mantendu nahi dugu, eta horrez gain, zentroetako parke informatikoa berritzen jarraitu, eta kalitate-indizeak bete (zerbitzuen aukera berriz, kexa eta iradokizunen ratioak eta abar).

2009ko KZgunea helburuak

Gustura dauden erabiltzaileen indizea	$\geq 90\%$
Ekipamenduak berritzea (PCak)	400
A eta B zentroyen erabilera (nabigaziokoak ez diren orduak)	58.000
e-Administrazioko prestakuntza (orduak)	20.300
C motako zentroyen prestakuntza (orduak)	5.000
Kexa eta iradokizunen ratioa	$< 0,5\%$

*A eta B zentroak: 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan.

*C zentroak: 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan.



AURREKONTUAREN LABURPENA



Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea
Sociedad Informática del Gobierno Vasco

KZGUNEKO GASTUEN AURREKONTUA 2008

Kudeaketa-zentroa	3.375.352
↳ Zentroaren azpiegitura	41.193
▪ Bulegoko materiala eta beste batzuk	25.330
▪ Beste hainbat gastu	22.863
↳ Proiektuaren kudeaketa	689.300
▪ Proiektuaren kudeaketa	196.560
▪ Instalazioak eta Erabiltzailearen Arretarako Zentroa	492.740
↳ Garapen teknikoa	2.637.859
▪ Telefono-lineak	275.560
▪ Zentroen ekipamendua	873.626
▪ Software-lizentziak	548
▪ ISO ziurtagiria	2.689
▪ Gogobetetze inkestak	10.617
▪ EJIE zerbitzu teknikoa	1.165.797
▪ Plataformaren migrazioa	309.022
Proiektuak eta komunikazioa	121.432
↳ Proiektuak eta komunikazioa	43.378
↳ Marketinga	78.054
Zentroak inplantatzea	9.604
↳ Seinaleak	9.604
Tutoretzak eta prestakuntza	4.733.612
↳ Tutoreak	4.733.612
Gastuak, guztira (BEZ barne)	8.240.000